

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Bikaintasunaren Nafarroako Saria deitu da, enpresa eta erakundeetako kudeaketaren kalitatea aitortzen duena

*Sariak XIX. edizioa ospatuko du aurten, lehiakortasuna eta emaitzak hobetzeko helburuarekin, enpresa txiki eta ertainetan bereziki*

Osteguna, 2019.eko otsailak 28

Izaskun Goñi Razquinek, Politika Ekonomiko eta Enpresarialaren eta Lanaren zuzendari nagusiak, gaur aurkeztu du, ostegunez, [Bikaintasunaren Nafarroako Sariaren XIX. deialdia](#). Garapen Ekonomikorako Sailaren asmoa da, ekimen honen bitartez, ahalik eta enpresa gehien lehiakortasuna eta emaitzak hobetzea, enpresa txiki eta ertainena bereziki, kudeaketaren hobekuntzaren bitartez.



Izaskun Goñi eta Marino Barasoian sariarekin, aurkezpenean.

Aurkezpenean izan da Marino Barasoain ere, Nafarroako Bikaintasunaren Fundazioko zuzendari gerentea. Erakunde hori da, hain zuzen, enpresa eta organizazioen kudeaketa ebaluatzen duten sari eta aitortpenak antolatzen dituena, bai EFQM ereduaren bitartez eta bai kudeaketa aurreratuko eredu berriaren bitartez. Sarirako hautagai diren enpresa eta erakundeen balorazio-prozesuaren garapena antzekoa da bi eruedetan. Bai EFQM ereduak eta bai kudeaketa aurreratukoak, “Diagnosia” izena jasotzen duen hasierako maila bat dute, gehi “Kanpo-ebaluazioko” beste hiru maila.

Behin maila horiek erdietsita, hiru urteko iraunaldia dauka lau kudeaketa mailletako bakoitzari dagokion aitortpenak.

Edizio honetan, gainera, erreferentziatzko eredu biren artean hautatzeko aukera eskaintzen da, hala, interesa duten erakundeek aukera berriak izan ditzaten lehiakortasuna hobetzeko beren planetan aplikatzeko.

Aitortpenen bidea ekin nahi dutenek, bai kudeaketa aurreratuko eredu aukeratua izan edo bai EFQM eredu aukeratua izan, 2019ko irailaren 13a baino lehen bidali beharko dute diagnosira sarrera egiteko eskabidea Nafarroako Bikaintasunaren Fundaziora.

Kanpo-ebaluazioa egin nahi duten kudeaketa maila handiagoko enpresa edo erakundeentzako eskabidea egiteko epea datorren

maiatzaren 17an bukatuko da. Azken kasu horretan, 2019ko ekainaren 14ra arte izango dute epea EFQM memoria edo kudeaketa aurreratuko gida entregatzeko. Sarien deialdiari buruzko informazio gehiago dago eskura esteka [honetan](#).

2018an 33 izan ziren egin ziren diagnosi eta ebaluazioak. 20 diagnosi egin ziren kudeaketa aurreratuko ereduari jarraikiz eta 4 EFQM ereduari jarraikiz. Kanpo-ebaluazioetan 9 erakunde ebaluatu ziren, 4 kudeaketa aurreratuko erreferentearekin eta beste bost EFQM erreferentearekin.

### **Nafarroako Bikaintasunaren Fundazioa**

Fundazioa 1999an sortu zuen Nafarroako Gobernuak, nahiz eta 2015az geroztik irabazi-asmorik gabeko fundazio pribatua den, bikaintasunarekin konpromisoa duen esparru publiko eta pribatuko enpresa eta erakunde talde batek osatua.

Nafarroako enpresa eta erakundeetan kudeaketaren bikaintasunaren kultura, oinarriak eta eredu aurreratuak sustatu eta zabaltzea du helburu, enpresa eta erakundeen garapen jasangarri eta iraunkorra sustatzeko, azken buruan beren lehiakortasuna hobetu, eta, horrela, Nafarroako Foru Komunitatearen ongizatean ekarpenak egiteko. Kudeaketa bikainari lotutako aspektu guztietan erreferentziatzeko erakunde gidaria izan nahi du fundazioak Nafarroako enpresa eta erakundeentzat, Nafarroa eta bertako enpresak nazio mailan eta nazioartean aintzatetsiak izan daitezen.

Egun 54 enpresa eta erakundeek osatutako patronatua dauka, Nafarroako Gobernuaren babesaz eta Obra Social la Caixa eta Fundación Caja Navarra bezalako beste erakunde batzuen babesaz gain. Fundazioaren parte egiten du baita 80 enpresa eta erakundeek osatutako kolaboratzaile-sareak, eta fundazioko ebaluazio-taldea osatzen duten 124 profesional ebaluatzaile boluntariok. "Ezagutza taldea" izena jasotzen du taldeak eta kudeaketan esperientzia duten pertsonak osatzen dute. Fundazioaren funtsezko aktibo da taldea.

Diagnosi- eta ebaluazio-prozesuez gain, kudeaketako prestakuntzako ikastaroak eskaini zizkien iaz fundazioak Nafarroako enpresa eta erakundeek, eta 18 hobekuntza-plan abiatu zituen enpresa eta erakundeetan, horiek aukeratutako aholkulariekin batera. Gainera, kudeaketako eremu desberdinetako praktika egokiei buruzko solasaldi eta jardunaldiak antolatu zituzten, giza baliabideei edo berrikuntzari buruz horien artean, enpresa nafarren lehiakortasuna hobetzeko helburuarekin.